

“Joxe Azurmendi. Euskal pentsamenduaren ur jauzia” Kongresua

Errektore andrea, ekitaldi honetara hurbildu zareten guztiak, arratsalde on.

Hitz bi esan nahi nituzke kongresu honen atarian Joxe Azurmendiren jardunaren garrantziaren inguruan.

Gure gizartearen etorkizuna, benetako arazoan aurrean hartzen ditugun erabakien zuhurtziaren esku egongo da. Epe luzean pentsatu beharko dugu, tokiko ikuspegi zein orokorrean, XXIgarren mendeko zientzia eta teknologian oinarrituz, eta zientziak soilik eskain ezin ditzakeen balioek gidatuta.

Badira dagoeneko teknologia disruptiboak, oinarritzko zientziak eragindako aurrerapen sakonetan oinarrituz, gizakiaren natura bera aldatzen ari direnak. Eragin gero eta handiagoa dute gure sinesmen kultural, etiko eta erlijiosoetan. Arriskutsua da zientziak gure eskuetan jartzen duen ahalmena bere erabilpenerako jakituria baino azkarrago haztea. Giza zientzien beste adarrekin ikuspegi orokorrago bat ezinbestekoa zaigu.

Osotasun horren baitako pentsalari erreferentziala da gurean Joxe Azurmendi. Eskertzekoa da Euskal Herriarekiko erakutsi duen leialtasuna, konpromisoa. Ikertu dituen gaiak eta horiek gure herrian bertan landu izanak erakusten dute konpromiso hori.

Bere zientzia, bere jakintza, hemen garatu du, zorrotasuna eta zolitasuna erakutsiz beti bere gogoetetan. Herriarekiko erakutsi duen leialtasun bera erakutsi du azterketa filosofikoarekiko. Joxe Azurmendik meditazioaren teknikari emandako arreta teknikaren meditazioari eman dionaren parekoa da.

Gure ikuspegia argitu eta berritzeko, kanpoko egileak eta gai unibertsalak ekarri ditu gurera. Bere bizi osoko jardunean zubiak eraiki ditu Joxe Azurmendik, bai filosofiatik bestelako zientzietara, eta baita mundutik Euskal Herrira ere.

Ez dut Azurmendirekin nahi adina hitz egin, baina badakit, denbora irabazteko ez dela Azurmendirekin hitz egitea baino denbora galtze hobeagorik. Bere goxotasun bare baina irmoa, ziurtasun absolutuetatik ihes egiten duten sinesmen sakonetan bermatzen da. Berarekin hizketaldia pausatua eta gozagarria da; ideietan sakontzeko eta pentsamoldea zabaltzeko aukera. Joxek zalantza zabaltzen du nigan. Berak erakutsi dit orduan eta gehiago jakin garbiago ikus daitekeela zenbaterainokoa den gure ezjakintasuna.

Oraindik buruan dut Eusko Jaurlaritzako sailburu berria nintzen garaian eman zidan aholkua. Aholku honen garrantziaz denbora pasa ahala konturatu nintzen.

Munduko Unibertsitate hoberenetan katedra preziatuenean izen bat daramate. Zorionak beraz Aldundiari eta Unibertsitateari. Zorionak, Nekane, zorionak Markel.

Balio bezate kongresu honek eta Joxe Azurmendi Katedra berriak bere lanari hauspoa eman eta zubi berriak eraikitzen jarraitzeko.

Nere aitak esaten zuen bezala, mila esker aunitz Joxe Azurmendiri, bihotzez eta miresmenez.

Pedro M. Etxenike
San Telmo Museoa, 2019ko abenduaren 11